



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko otsailaren 5a

6. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak, 2009ko ekitaldirako (2. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak 2009ko ekitaldirako (3. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2009ko ekitaldirako (3. or.).
- Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langile Batzordearen arteko hitzarmena, 2008-2011 eperako (4. or.).
- Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egin (13. or.).
- Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2009rako (21. or.).
- Aldatzea Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2009rako (21. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak, 2009ko ekitaldirako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuruak eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15, 35 eta 37. artikuluetan xedatuari jarraikiz, hau ERABAKI DA:

**1.** Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak onestea, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

A) Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak:

– Dietak: 148,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

– Dietak: 175,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

Kilometro-ordaina: kilometro bakoitzeko 0,31 euro.

B) Parlamentu-taldeentzako ordainsariak:

a) Dirulaguntza finkoa: 8.020,00 euro/hilabete/parlamentu-talde.

b) Dirulaguntza aldakorra: Kontzeptuon baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu gastuak: 1.449,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa gastuak: 1.108,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.136,00 euro/hilabete/parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

**2.** Bidaia ofizialengatik ordainen zenbatekoa ezartzea, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez: Nafarroatik kanpora eginiko bidaietan, eguneko 106,91 euro, eta atzerrira eginiko bidaietan, eguneko 168,79 euro.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Foru parlamentarien ordainsariak 2009ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak foru parlamentarien ordainsariei buruz eginiko txostena ikusirik, eta kontuan hartuz foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan ezarritakoa eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoa, hau ERABAKI DA:

1. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2009. urterako, 60.436,04 eurokoa izanen da.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2009. urterako, 53.142,04 eurokoa izanen da.

3. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2009. urterako, 45.326,96 eurokoa izanen da.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2009. urterako, 39.856,46 eurokoa izanen da.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2009ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariei buruz eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Lehendakariaren 2009. urteko ordainsari gordina 79.553,74 eurokoa izatea.

2. Lehendakaritzako Kabineteko buruaren 2009. urteko ordainsari gordina 54.444,46 eurokoa izatea.

3. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak ezartzea, 2009. urterako:

Lehendakaritzako idazkaria: 35.602,70 euro.

Mahaiko kideen idazkaria: 28.629,72 euro.

Parlamentu-taldearen laguntzaileak: 28.629,72 euro.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langile Batzordearen arteko hitzarmena, 2008-2011 eperako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langile Batzordearen arteko hitzarmena, 2008-2011 eperako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langile Batzordearen arteko hitzarmena, 2008-2011 eperako**

### 1. APLIKAZIO ESPARRUA

2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra. Hitzarmen hau besterik gabe luzatuko da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, beste hitzarmen batek ordeztu arte.

### 2. ORDAINSARIAK

a) Kontuan hartuta legebiltzarreko langileek beti bermatu behar dutela Parlamentuan egiten diren jarduera guztien arreta, nahiz eta ohiko lanalditik kanpo izan, eta gordetze aldera lanpostuei eskatzen zaien ardura eta moldaketari dagozkion ordainsariak, parlamentu-jarduera ahalik eta hobekien gauzatze aldera, urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan lanpostu bakoitzari dagozkion lanpostu-osagarria egokituko da, Parlamentuko Mahaiak 2008ko ekainaren 2an hartutako erabakien bidez ezarritako baliokidetzaren sistemari jarraikiz.

Erabaki eta sistema horiek Parlamentuko lanpostu guztiei aplikagarri izate aldera, ondoko testua gehituko zaio Parlamentuko Langileen Estatutuaren 29.3 artikulua a) idatz-zatiari, eta horrek ondorioak izanen ditu 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera: "kasuan kasuko mailaren oinarritzko soldataren % 100ekoa izanen da, gehienez".

Aurrekoa ezertan galarazi gabe, 2010eko bigarren seihilekoan berriro baloratuko da lanpostu-osagarriaren egokitasuna.

b) Familia-laguntzari dagozkion saria ordainduko zaien langile kontratudunei, zerbitzuak ematen hasi eta hirugarren hilabetetik aurrera.

Horretarako, ondoko testua gehituko zaio Parlamentuko Langileen Estatutuaren 4. artikuluko 4. idatz-zatiari: "eta familia laguntza zerbitzuak ematen hasi eta hirugarren hilabetetik aurrera."

c) Eskubide pasiboen araudian eraginik izanen ez bada ere, soldaduska edo ordezkari gize zerbitzua betetzen emandako denbora kontuan hartuko da gradua eta antzinate saria kalkulatzeko, betiere ez bada egokitzen aitortutako beste aldi batzuekin.

Horretarako, xedapen gehigarri bat, bederatzi-garrena, gehituko zaio Parlamentuko Langileen Estatutuari. Hona hemen testua: "Graduari eta antzinate sariari dagozkion ordainsarietan bakarrik eragina izan dezan, Parlamentuko funtzionarioei kontuan hartuko zaie, aitortutako zerbitzuez gain, soldaduska edo ordezkari gize zerbitzua betetzen emandako denbora, betiere ez bada haiekin batera egokitu".

### 3. LANALDIA

a) Ostiraletako lanaldia goizez izanen da.

b) Lan egutegian jai egunak izanen dira urtero uztailaren 7tik 14ra bitartekoak, baina horren ondorioz urteko lanaldia ez da 12 ordu baino gehiago murriztuko.

Horrenbestez, urteko lanaldia 1.560 ordukoa izanen da langile guztientzat.

2008. urteari dagozkion 12 orduak 2009an hartu ahalko dira, kasuan kasuko zerbitzuko buruaren baimenarekin.

c) Familia- eta lan-bizitza bateragarriago egiteko, ordutegi-malgutasunaren ondorioz bete gabe geratzen den denbora arratsaldeko ordutegian beteko da, malgutasuna erabiltzen den hila-betearen barruan. Denbora hori berreskuratu ahalko da baita ere, zerbitzuaren beharrezan ahalbidetzen badute, 15:30etik eta 16:30era, asteen zehar.

d) Indarrean dauden arauak lanaldia erdi batean, heren batean edo laurden batean murrizteko aukera jasotzen dute; honen bidez, lanaldia bosten batean murrizteko aukera gehitzen da aipatu arauetan jasotako kasuetarako.

e) Genero indarkeriaren biktima diren funtzionarioek, beren burua babeste aldera edota kasuan kasuko ebazpen edo txostenen bidez ezarritako gizarte-laguntza integrala jasotzeko eskubidea baliatze aldera, eskubidea izanen dute lanaldia murrizteko eta ordainsaria proportzio berean murrizteko, edota ordutegia egokitzeko, ordutegi malgua aplikatuta.

f) Indarrean dauden arauak jarraikiz, posible bada Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria bere osotasunean mantentzea, beren lanaldia murrizten duten 60 eta 65 urte arteko funtzionarioei, erretirorako kotizazio-oinarria izandako aldeagatik beraien kotizatzen badute, murrizketaren aurreko kotizazio-oinarria mantentzeko ordaindutako zenbateko itzuliko zaie, behar bezala justifikatu ondoren.

g) Kontuan hartuta beste administrazio publiko batzuetan eginiko azterlan eta esperientziak, azterlan bat eginen da aztertzeke zein den telelanaren sistemak duen bideragarritasuna Parlamentuko lanpostuetan.

#### 4. OPORRAK

a) Betiere zerbitzuko beharrianek ahalbidetzen badute, urtarrilean edota uztailearen 1etik irailaren 15era bitarte hartu beharreko opor egunen blokearen konfigurazioa malguagoa izanen da, halako moduz non hiru zatitan hartu ahalko diren. Halaber, opor egunak eta norberaren gauzetarako baimenak lotu ahalko dira oporraldi berean.

b) Oporrak urte naturalean hartu beharko dira. Zerbitzuaren beharrianak direla-eta beharrezkoa denean, opor horiek hartu ahalko dira hurrengo urtearen urtarrilaren 31ra arte.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren salbuespen gisa, funtzionarioek eskubidea izanen dute opor egunak pilatzeko, indarrean dagoen araudian aurreikusitako erditzeagatik eta haurrak adoptatu edo hartzeagatik lizentzien eta lanaldi osoko aitasun edo bularra emateagatik baimenen ondoren, nahiz eta amaituta izan opor horiei dagokien urte naturala.

c) Arestian aipaturiko guztia jasota dago honekin batera 1. eranskin gisa doan Nafarroako Parlamentuko Funtzionarioen Opor, Lizentzia eta Baimenen Erregelamenduaren proiektuan.

#### 5. FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO ETA GENERO INDARKERIARIAGATIKO LIZENTZIAK ETA BAIMENAK (LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN 49. ART.)

Aitortzen dira Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 49. artikuluan aurreikusitako baimenak, Nafarroako Parlamentuko Funtzionarioen Opor, Lizentzia eta Baimenen Erregelamenduaren proiektuan aratutako moduan.

#### 6. BESTE LIZENTZIA BATZUK

a) Aitortzen dira Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen Foru Dekretu proiektuan aurreikusitako gainerako lizentzia eta baimenak. Lizentzia eta baimen horiek jasota daude arestian aipatutako erregelamendu proiektuan, ondoko zehaztapenarekin: bularra emateko denbora hartzen bada lanaldi osotan metatuta, ordaindutako baimen hori baliatu ahalko da kasuan kasuko erditzeagatik, adoptatzeagatik edo harreragatik baimenaren jarraian. Halaber, bularra emateagatik baimena dela eta, lanaldia ordu erdi bat murriztu ahalko da, lanaldiaren hasieran edo bukaeran.

b) Erregelamendu proiektuan ondoko baimenak gehituko zaizkie arestian aipatutakoei:

1. Haurrak garaia baino lehen jaiotzeagatik edota erditzearen ostean edozein arrazoiengatik ospitalean egon beharko balute, funtzionarioak eskubidea izanen du lanetik ateratzeko egunean bi orduz gehienez, ordainsari osoak jasota. Halaber, eskubidea izanen dute lanaldia gehienez ere bi orduz murrizteko, bere ordainsariak proportzio berean murriztuta.

2. Ezkontidea edo bikotekide egonkorra edota odolbidezko lehen mailako ahaide bat zaindu behar izateagatik, funtzionarioak eskubidea izanen du lanaldi erdirainoko murrizketa ordaindua eskatzeko, gaixotasun oso larria dela-eta, eta urtean hilabete batez gehienez ere. Eskubide horren titular bat baino gehiago balego gertaera beragatik, murrizketa horren denbora horien artean banatu ahalko da, beti ere hilabeteko gehieneko epea errespetatuta.

#### 7. PRESTAKUNTZA

a) Kasuan kasuko probak burutu ondoren osatutako prestakuntzarako izangaien zerrendek iraupen mugagabea izanen dute. Funtzionarioen batek lehendik dagoen zerrenda batean sartu nahi badu, kasuan kasuko hautapoben deialdia eginen da.

b) Deialdi bat eginen da transkriptore gisa prestakuntza jasotzeko izangaien zerrenda bat osatzeko. Deialdi horretan parte hartzen dutenek, administrari gisa prestakuntza jasotzeko zerrendan baldin badaude, ez dituzte egin beharko haren deialdian aurreikusitako proben berdinak direnak.

c) Kasuan kasuko zerbitzuko buruak eskatuta eta legelari nagusiaren baimenarekin egiten diren prestakuntza jardueretan, Parlamentuko langileek ematen duten irakastordu bakoitza, betiere bere lanpostuak berezko dituen eginkizunei ez badagokio, Nafarroako Gobernuak ezarritako modu eta zenbateko berean konpentsatuko da.

#### 8. BESTE ONURA SOZIAL BATZUK

Istripu aseguruan aseguraturatuko kapitalak handitu eginen dira; horrela, 90.151,82 euro eginen dute heriotzagatik, eta 180.303,63 euro balioezintasun iraunkorragatik.

#### 9. ARAU-ERREFORMAK

Opor, Lizentzia eta Baimenen Erregelamenduz eta aurreko 2. eta 7. idatz-zatietan aurreikusitako arau-aldaketek gain, ondokoak ere eginen dira:

a) Lekualdatze lehiaketen araudiaren segurtasun juridikoa handitze aldera, eta Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lan egiten duten funtzionarioen Langile Batzordearen arteko 2004-2007 eperako Hitzarmenaren 5.b) idatz-zatian eginiko aldaketari jarraikiz, idatz-zati berri bat gehituko da Parlamentuko Langileen Estatutuko artikulua 26.3 idatz-zatiaren lehen lerrokadaren ondotik. Hona hemen testua: "Lehiaketa horien deialdietan sartuko da, kasuan kasuko baremoaz gain, proba praktikoko baztertzaila bat lanpostuaren edukari eta eginkizunei buruz eta Nafarroako Parlamentuaren eza-gutzari buruz."

b) Parlamentuko Langileen Estatutuko 33. artikuluko 4. idatz-zatiaren a) letra aldatu eginen da. Hona hemen testua:

"a) Hauteskundeetara aurkezten diren zerrendek zazpi hautagai izanen dituzte, gutxienez."

c) Aldi baterako kontratazioa ahalik eta arinen egin ahal izate aldera, bi letra gehituko zaizkio, d) eta e), Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi

baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamenduaren 5. artikuluko 2. idatz-zatiari. Hona hemen testua:

"d) Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez osatutako izangaien zerrendak.

e) Aurreko letretan aurreikusitako zerrendarik ez balego, deitu ahalko zaie Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak dituen kontratazio-rako zerrendetan agertzen diren izangaiei."

d) Indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduan ezarritakora egokitze aldera, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamenduaren 5. artikuluko 3. idatz-zatiak idatzera hau izanen du: "3. Aurreko idatz-zatiko a) letran aipatzen diren zerrendetan dauden Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek lehentasuna izanen dute 1. artikuluan adierazitako lanpostuak aldi baterako betetzeko, betiere aurreikusitako iraupena bi hilabetekoa edo gehiagokoa bada. Hala ere, gehienezko iraupena 24 hilabetekoa izanen da, ezertan galarazi gabe Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduaren 3.1 artikuluan aurreikusitako luzatzeko aukera."

#### 10. AURREKO HITZARMENAK

Hitzarmen honetan jasota ez dagoenerako, aurretik onetsitako baldintzak izanen dira arau, baldin eta ez badoaz hitzarmen honetan ezarritakoen aurka.

Aurreko hitzarmenak hobeto ezagutze aldera, horien bilduma eginen da eta Parlamentuko intranetean jarriko da.

#### 11. HITZARMENAREN GARAPENA ETA ARGITALPENA

Hitzarmen honen aplikazioari eta garapenari dagokienez, Langileen Batzordeari entzunaldia emanen zaio, eta Nafarroako Parlamentuak behar den arau-maila emanen die hitzarmen honetako atalei, bai eta haien geroko garapenari ere, onepen formalaren eta indarra hartzearen ondorioetarako.

Era berean, hitzarmen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

## ERANSKINA

### Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

###### 1. artikulua. Erregelamenduaren xedea.

Erregelamendu honen xedea da Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan aurreikusitako oporrak, lizentziak eta baimenak arautzea. Langileen Estatutua Erregelamendu Batzordeak onetsi zuen, 1991ko martxoaren 20an eginiko bilkuran.

###### 2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Erregelamendu hau Nafarroako Parlamentuko funtzionarioei aplikatuko zaie.

###### 3. artikulua. Opor, lizentzia eta baimenen araubidea.

1. Erregelamendu honetan aipatzen diren oporrak, lizentziak eta baimenak Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiak emanen ditu, kasuan kasuko zerbitzuberuak aldeztatik txostena egin eta gero, salbu eta 14. artikuluan ezarritako kasuan.

2. Oporrak, lizentziak eta baimenak ematean zaindu egingen dira zerbitzuaren beharrianak.

#### II. KAPITULUA

##### Oporrak

###### 4. artikulua. Oporren iraupena.

Funtzionarioek, zerbitzu aktiboko urtebete bakoitzeko, eskubidea izanen dute hogeita zazpi lanegun opor –soldatadunak– hartzeko, edo zerbitzu-aldia gutxiagokoa izan bada, proportzionalki dagozkien egun kopurua.

###### 5. artikulua. Oporren araubidea.

1. Oporrak urte natural bakoitzean hartu behar dira. Zerbitzuaren beharrianak direla-eta beharrezkoa denean, oporrak hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte hartu ahalko dira.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren salbuespen gisa, funtzionarioek eskubidea izanen dute opor egunak pilatzeko, erregelamenduan aurreikusitako erditzeagatik eta haurrak adoptatu edo hartzeagatik lizentzien eta lanaldi osoko aitatasun edo bularra emateagatik baimenen ondoren, nahiz eta amaituta izan opor horiei dagokien urte naturala.

3. Opor horiek hartzen ez dituzten funtzionarioek ez dute diru-ordainik izanen non eta ez hartzea zerbitzuko beharregatik izan ez den.

4. Oporretako hogeita zazpi egunak bi multzotan banatzen dira: lehendabizikoa hamabi egunekoa da, eta urte osoan zehar batera nahiz banaka hartu ahalko dira; bigarrena hamabost egunekoa da, eta urtarrilean edo uztailaren 1etik irailaren 15era bitarte hartu behar dira. Hamabost egun horiek hiru multzotan banatu ahalko dira.

5. Opor egunak eta norberaren gauzetarako baimenekoak batera hartu ahalko dira.

###### 6. artikulua. Oporrak etetea.

Funtzionario bat oporretan dagoela eritzen bada, haren oporraldia ez da hortaz etenen, non eta istripu edo gaitz horren ondorioz lau egun baino gehiago ospitaleratuta egon beharrean gertatzen ez den edo mediku batek eritasun larri edo oso larriaren irizpena ematen ez dion (ospitaleratu ala ez); hori behar diren osasun-ziurtagirien bidez frogatu behar dira.

Kasu horietan, oporen etena ospitaleratzearen edo eritzearen lehenbiziko egunean hasiko da.

#### III. KAPITULUA

##### Lizentzia soldatadunak

###### 7. artikulua. Azterketa ofizialak egiteko lizentzia soldataduna.

1. Zilegi izanen da lizentzia soldatadunak ematea azken azterketetara eta ikastetxe ofizialetako behin betiko bestelako gaitasun eta ebaluazio probetara aurkezteko, ezinbestekoa den denborarako.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren lizentziak eman zaizkien funtzionarioek Zerbitzu Oporretako buruari aurkeztu behar dira diote azterketa edo proba horiek egin dituztela adierazten duen frogagiria.

###### 8. artikulua. Ezkontzagatiko edo bikote egonkorra osatzeagatik lizentzia soldataduna.

1. Funtzionarioek hamabost egun naturaleko lizentzia soldataduna jasotzeko eskubidea izanen dute, baldin eta ezkondu edo bikote egonkorra osatzen badute.

2. Ezkontza frogatzeko, familia liburua edo erregistro zibileko ziurtagiria aurkeztu behar dira funtzionarioak Zerbitzu Oporretako buruari. Bikote egonkorra osatu izana kreditatzeko, aski izanen da zuzenbidean onartutako edozein frogagiria.

3. Ezkontzeak edo bikote egonkorra osatzeak ez du inola ere sortuko pertsona berak behin baino gehiagotan baliatu ahal izatea artikulua honetan araututako lizentziak.

**9. artikulua.** Erditzeagatiko lizentzia soldataduna.

1. Emakume funtzionarioek, erditzen direnean, etenik gabeko hamazazpi asteko lizentzia soldataduna izateko eskubidea izanen dute. Lizentzia hori bi aste gehiagokoa izanen da, baldin eta seme-alabak ezgaitasunen bat badu edo, erditze multipleen kasuan, seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aitzina. Lizentzia-aldia interesdunaren nahieran banatuko da, baina sei aste nahitaez izanen dira erditzearen ondo-ondokoak. Ama hilez gero, aitak baliatu ahalko du lizentzia, osorik edo, kasu bada, gelditzen den zatia. Seme-alaba hilez gero, lizentzia-aldia ez da murriztuko, salbu eta, nahitaez hartu beharreko sei asteko atsedenaldea bukatuta, amak lanera itzultzea eskatzen badu.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, eta erditu ondoan amaren atsedenerako nahitaez sei aste hartu beharra galarazi gabe, bai aitak eta bai amak lan egiten duten kasuetan zilegi izanen da aitak erditzearen ondoan hartzea atsedena aldiaren parte jakin eta jarraitu bat, dela amarekin batera nahiz ondokitik. Aitak hasiera batean lagatako lizentzia-aldia baliatzen jarraitu ahalko du, nahiz eta ama lanera itzuli beharreko unean aldi baterako ezintasun egoeran egon.

3. Garaiz aurreko erditzeen kasuan eta zeinahi arrazoi dela-eta jaioberriak erditzearen ondokit ospitaleratuta egon behar duen kasuetan, lizentzia handitu egingen da, jaioberria zenbat egun dagoen ospitaleratuta, horrenbeste, eta gehienez ere hamahiru aste gehiago.

4. Bi gurasoek aldi berean hartzen badituzte atsedenaldiok, ez da zilegi bien atsedenaldien artean aurreko idatz-zatietako hamazazpi asteak baino gehiago izatea, edo seme-alabaren ezgaitasun kasurako edo erditze multiplearen kasurako agindu dena baino.

5. Amatasun lizentziaren eskaerari txosten bat erantsi beharko zaio, zeinaren bidez justifikatuko baita haurdunaldia ehun eta laurogei egun baino gehiagokoa izan dela. Erditzea zein egunetan izan den frogatzeko, familia liburua edo erregistro zibileko ziurtagiria aurkeztu beharko zaio Zerbitzu Orokorretako buruari.

6. Lizentzia honek dirauen bitartean administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu ahalko da.

**10. artikulua.** Haurren adopzio edo harrerarako lizentzia soldataduna.

1. Adopzio edo harrera kasuetan –harrera adopzio aurrekoa nahiz iraunkorra edo sinplea izan–, lizentzia etenik gabeko hamazazpi astekoa

izanen da. Lizentzia hori bi aste gehiagokoa izanen da, baldin eta adoptatu edo hartutako adingabeak ezgaitasunen bat badu edo, adopzio edo harrera multipleen kasuan, seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aitzina.

2. Epea zenbatzen hasiko da, funtzionarioak hala erabakita, harrerari buruzko erabaki administratibotik edo judizialek aitzina edo adopzioa eratzeko ebazpen judizialek aitzina, baina adingabe batek inola ere ez du sortuko eskubidea artikuluhonetan araututako lizentziatarik bat baino gehiagobaliatzeko.

3. Bai aitak eta bai amak lan egiten dutenean, lizentzia interesdunek nahi duten bezala banatuko da, aldi berean edo hurrenez hurren, eta betiere zati jarraituetan.

4. Nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan, gurasoek adopzioan hartuko duten haurren jatorrizko herrialdera joan beharra dutenean, aurreko idatz-zatietako kasu bakoitzerako aurreikusitako lizentzia adopzioari buruzko ebazpena edo harrerari buruzko erabaki administratibo edo judiziala eman baino lau aste lehenagotik ere hasi ahal izanen da. Halaber, kasu horietan bi hilabete bitarteko baimenaz gozatzeko eskubidea izanen da, epe horretan oinarrizko lansariak bakarrik jasoz, betiere.

5. Bi gurasoek aldi berean hartzen badituzte atsedenaldiok, ez da zilegi bien atsedenaldiek, batera, aurreko idatz-zatietako hamazazpi asteak baino gehiago egitea, edo adoptatutako adingabeak ezgaitasuna duen kasurako edo adopzio edo harrera multiplearen kasurako ezarritakoa baino.

6. Artikulu honetan aurreikusitakoari dagokionez, adopzioak edo harrerak –harrera adopzio aurrekoa nahiz iraunkorra edo sinplea izan–, horiek arautzen dituen araudiaren arabera izanen dira; harrera sinpleak, berriz, urtebetetik gorakoa izan beharko du.

7. Lizentzia honek dirauen bitartean administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu ahalko da.

**11. artikulua.** Erditzeagatiko lizentzia soldataduna edo adopzio edo harrerarako lizentzia soldataduna lanaldi partzialean hartzea.

1. Aurreko artikuluetan ezarritako lizentzia soldataduna, erditzeagatikoa edo adopzio edo harrerakoa, lanaldi partzialean hartzen ahalko da, arau hauei jarraikiz:

a) Baimen hori lanaldi partzialean hartu ahal izateko, beharrezkoa izanen da interesdunak alde



aurretik eskatzea, kasuan kasuko zerbitzuburuak txostena egitea eta legelari nagusiak ebazpena ematea, eta baldintza izanen du, kasua bada, hura egiazki ordeztzea.

b) Lanaldiaren herenekoa edo erdikoa izan ahalko da lizentzia.

c) Oro har, lizentzia hau egunero baliatzekoa izanen da eta langilearen lanaldiaren lehenbiziko eta/edo azken orduak hartuko ditu, betiere zerbitzuaren beharren arabera.

2. Lanaldi partzialeko lizentzia honen iraupena ebazpenean zehaztuko da, eta etenik gabe luzatuko da bukatu arte. Hori, dena dela, ez da eragozpen izanen erditzearen kasurako hurrengo idatzatiazioan xedatutakoa betetzeko.

3. Lanaldi partzialeko baimen hau aitak zein amak hartzen ahal dute. Biek hartuz gero baimena aldi berean har dezakete edo bata besteara bukatzen denean.

Erditzearen kasuan, amak ezin izanen du halako baimenik hartu umea jaio ondoko lehenbiziko sei asteetan, nahi eta nahiezko atsedena baita amarentzat.

4. Funtzionarioak, lanaldi partzialeko baimenaz baliatzen ari den bitartean, ezin izanen du inolara ere ordu estrarik egin, ez eta bere lanaldi berritik kanpoko inongo zerbitzurik ere.

5. Lanaldi partzialeko lizentzia hau eta ondoko eskubideak aldi berean baliatzea bateraezina da funtzionarioarentzat:

a) Erregelamendu honetako 16. artikuluan aurreikusitako baimen soldataduna, hots, hamabi hilabetez beheitiko haurra edoskitzeko baimena.

c) Erregelamendu bidez ezarritako lanaldiaren murrizketetako edozein.

**12. artikulua.** Haurdunaldia arriskuan egoteagatik lizentzia soldataduna eta edoskitze naturala.

Emakume funtzionario baten lanpostuko baldintzek eragin negatiboa izan baldin badezakete emakume haurdunaren nahiz haren seme-alabaren osasunean, lizentzia soldataduna eman ahalko zaio haurdunaldia arriskuan egoteagatik, laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzko araudian ezarritako modu eta baldintzekin.

Arestiko lerrokadan xedatutakoa orobat aplikatuko da edoskitze naturalak dirauen bitartean.

#### IV. KAPITULUA Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeak

**13. artikulua.** Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeen iraupena eta araubidea.

1. Zilegi izanen da norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeak ematea, osotara bi urte naturaletan gehienez bost hilabete osatu artekoak.

2. Artikulu honetan aipatutako lizentziak eskatzen badira, arrazoitu egin beharko da eskaera, eta, betiere, zerbitzuaren beharrezan menpe egonen da lizentzia eman ala ez.

**14. artikulua.** Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeen araubidearen berezitasunak.

Norberaren gauzetarako lizentzia soldatagabeen iraupena bi urte naturaletan bost hilabete osatu artekoa izan ahalko da. Lizentzia emateko, ondoko arauak bete beharko dira:

a) Eskaera arrazoitu egin beharko da.

b) Lizentzia hau eskatzeko ez da beharrezkoa izanen oporrak aurretik ahiturik izatea.

c) Lizentzia-ematea, betiere, zerbitzuaren beharrezan menpe egonen da, salbu eta eskatzaileak lizentzia baliatzen hasi aurretik ordezkaria jarria badu. Lizentzia Mahaiaren erabaki bidez emanen da, Zerbitzu Orokorretako eta kasuko zerbitzuko buruek txostena egin eta gero.

d) Lizentzia ukatzen baldin bada, ukatzeko arrazoiak azaldu beharko dira.

e) Soldatagabeko lizentzian egondako denborak ez du opor eskubiderik sortuko eta beraz kontzeptu hori ez da kontuan hartuko egin behar den soldata deskontuan, salbu eta opor horiek lehenetik hartu badira.

#### V. KAPITULUA Lizentzia soldatadunak

**15. artikulua.** Aitatasun-lizentzia soldataduna.

1. Hamabost egun naturaleko baimen soldataduna emanen zaio aitari seme-alaba jaio, hartu edo adoptatzeagatik. Baimena baliatuko da jaiotegunetik, harrerari buruzko erabaki administratibo edo judizialaren egunetik edo adopzioa eratzeko ebazpen judizialaren egunetik aitzina.

2. Baimen hau ez dago lotuta erregelamendu honetako aurreko artikuluetan aurreikusten diren erditzeagatik eta haurrak adoptatu edo hartzeagatik lizentzia soldatadunak batera baliatzearekin.

3. Bateragarri dira aitatasun-lizentzia soldataduna eta jaioberria ospitalean sartu behar izateagatikoa, bi baimenetarako baldintzek bat egiten dutenean eta aldi berean gertatzen badira.

**16. artikulua.** Hamabi hilabetez beheitiko haurra edoskitzeko baimen soldataduna.

1. Hamabi hilabetez beheitiko haurra duten funtzionarioek eskubidea izanen dute egunean ordubetez lantokitik alde egiteko. Funtzionarioak hala erabakiz gero, ordubeteko tarte hori hiru ordu laurdeneko bi zatiki bihur ditzake, edo, bestela, lanaldia ordu erdi murriztu ahalko du lanaldiaren hasieran eta amaieran, edo ordubete lanaldiaren hasieran edo amaieran. Hautaera hori soilik ukatu ahalko da, salbuespenez eta arrazoituta, baimena emateak zerbitzuaren funtzionamenduari traba handia egiten dion kasuetan.

2. Baimen hori proportzionalki handituko da erditze multiplean kasuetan.

3. Baimen hori aitak zein amak baliatu ahalko du, baldin eta biek lan egiten badute.

4. Bateriaezinak izanen dira edoskitzeko baimena eta aitak nahiz amak erditzeagatikoa eta haurrak adoptatu edo hartzeagatikoa lizentzia nahiz errege-lamendu bidez ezarritako edozein lanaldi murriztu baliatzea.

5. Interesdunek eskatu ahalko dute edoskitzeko denbora pilatzea eta lanaldi osoko baimen soldatadun bihurtzea, zeina erditzeagatikoa eta haurrak adoptatu edo hartzeagatikoa lizentziaren ondoren baliatuko baita.

**17. artikulua.** Ernalketa lagunduko tekniketarako baimen soldataduna.

Emakume funtzionarioek eskubidea izanen dute ernalketa lagunduko tekniketarako ezinbestekoa den denboraz lanetik ateratzeko, betiere alde zurretik justifikatuz gero tratamendua lanaldian egin beharra.

**18. artikulua.** Jaio aurreko azterketak egiteko eta erditzera prestatzeko tekniketan trebatzeko baimen soldataduna.

Zilegi izanen da baimen soldatadunak ematea funtzionario emakumezkoen jaio aurreko azterketak egiteko eta erditzera prestatzeko tekniketan trebatzeko, lanaldian egin beharrekoak direnean.

**19. artikulua.** Garai aurreko seme-alabak jaiotzeagatikoa baimena.

Garaia baino lehen jaiotzeagatik edota beste edozein arrazoiengatik erditzearen ostean haurrek ospitalean egon beharko balute, funtzionarioak eskubidea izanen du lanetik ateratzeko egune-

an bi orduz gehienez, ordainsari osoak jasota. Halaber, eskubidea izanen dute lanaldia gehienez ere bi orduz murrizteko, bere ordainsariak proportzio berean murriztuta.

**20. artikulua.** Baimen soldataduna, emakume funtzionarioaren aurkako generoko indarkeria dela eta.

Generoko indarkeriaren biktima diren emakume funtzionarioek lanera huts egiteak –osoak nahiz partzialak– justifikatuz hartuko dira, osasuneko edo laguntzako gizarte zerbitzuek kasuan kasuan ezarritako baldintzetan eta denboran.

**21. artikulua.** Hezkuntza bereziko ikastetxeetan tratatutako seme-alabei laguntzeko baimen soldataduna.

Legez onartutako ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenetakoa duten seme-alabak dituzten langileek zilegi dute lanetik ateratzea, tratamendua ematen zaien hezkuntza bereziko ikastetxeetako koordinazio bileretan parte hartzeko edo osasun esparruan laguntza gehigarria jaso behar badu, hara laguntzeko.

**22. artikulua.** Ahaide baten heriotzagatikoa baimen soldataduna.

1. Lau egun naturaleko baimen ordaindua emanen da ezkontidea edo bizikidea eta odolbidezko lehen mailako ahaideak hiltzen direnean, heriotza Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta bost eguneko handik kanpora gertatuz gero.

2. Hiru egun naturaleko baimen soldataduna emanen da ezkonbidezko lehen mailako ahaideak eta senideak hiltzen direnean, heriotza Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta lau eguneko handik kanpora gertatuz gero.

**23. artikulua.** Ahaide baten gaixotasunagatikoa baimen soldataduna.

1. Baimen soldataduna emanen da ezkontidea edo bizikidea eta odolbidezko lehen mailako ahaideak ospitalean bost egun baino gehiagoko egonaldia egin beharrean daudenean edo irizpen medikoa (ospitalean egon ala ez) eritasun larria edo oso larria denean; baimena lau eguneko izanen da gertaera Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta bost eguneko handik kanpora gertatuz gero.

2. Ezkontidea edo bikotekide egonkorra edota odolbidezko lehen mailako ahaide bat zaindu behar izateagatik, gaixotasun oso larria dela eta funtzionarioak eskubidea izanen du lanaldi erdirainoko murrizketa soldataduna eskatzeko, urtean hilabete batez gehienez ere. Eskubide horren titular bat baino gehiago badago gertaera beragatik,

murrizketa horren denbora titularkideen artean banatu ahalko da, betiere hilabeteko gehieneko epea errespetatuta.

3. Baimen soldataduna emanen da ezkonbidezko lehen mailako ahaideak edo senideak ospitalean bost egun baino gehiagoko egonaldia egin beharrean daudenean edo irizpen medikoa (ospitalean egon ala ez) eritasun larria edo oso larria denean; baimena hiru eguneko izanen da gertaera Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen bada, eta lau eguneko handik kanpora gertatuz gero

4. Ospitaleko egonaldiak hori baino gutxiago irauten badu, edo irizpen medikoa pronostiko erreserbatuko eritasuna edo eritasun ez hain larria delarik, baimen ordaindua egun batekoa izanen da gertaera Nafarroako Foru Komunitatean denean eta bi eguneko handik kanpora denean.

5. Aurreko idatz-zatietan aurreikusi diren eritasun edo ospitaleratze kasuetan, zilegi izanen da kasuan-kasuan, ospitaleratzea edo eritasuna zein egunetan hasi den kontuan harturik, ateratzen den egun kopurua eritasunak edo ospitaleko egonaldiak irauten duen guztian hartzea, betiere zerbitzuaren beharrek hartarako bide ematen duten heinean.

**24. artikulua.** Ahaideen heriotzagatiko edo eritasunagatiko bestelako baimen soldatadunak.

1. Egundateko baimen soldataduna emanen da 22, 23.1 eta 23.3 artikuluetan ezarritako arrazoi berengatik artikuluhorietan aipatzen ez diren odolbidezko nahiz ezkonbidezko bigarren mailako ahaideen kasuan, baldin eta gertaera Nafarroako Foru Komunitatean izan bada, eta bi eguneko handik kanpora agitu bada.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako baimena hartzeko, erregelamendu honetako 23.5 artikuluan ezarri diren arau berak hartuko dira aintzat.

**25. artikulua.** Ahaideen gaixotasunagatiko baimen soldatadunen muga.

23. artikuluan ezarritakoa gorabehera, ez da erregelamendu honen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako baimen soldatadunak emanen harik eta gutxienez hilabetea iragan bitarte subjektu bera eta arrazoi bera direla medio emandako baimena bukatzen denetik. Betiere, subjektu bera eta arrazoi bera direla medio baimen soldatadun bakarria eman ahalko da, nahiz eta baimena emateko arrazoiak bere horretan iraun.

**26. artikulua.** Ahaideen kirurgia handi anbulatorioagatiko baimen soldataduna.

1. Bi egundateko baimen soldataduna emanen da ezkontide edo bizikideari, seme-alabei

edo gurasoei kirurgia handi anbulatorioa egin behar zaien kasuetan.

2. Kasu horietan, kirurgia anbulatorio handizat hartuko dira eriak operazioaren egundatean berean etxera itzultzen diren prozedura kirurgikoak, zein ere anestesia klase aplikatu zaien eta operazioak zenbat ere iraun duen.

**27. artikulua.** Aldaira egiteko baimen soldataduna.

Egundateko baimen soldataduna emanen da aldaira egiteko.

**28. artikulua.** Ezinbesteko eginbehar publiko nahiz pertsonal bat egiteko baimen soldataduna.

Baimen soldatadunak eman ahalko dira ezinbesteko eginbehar publiko nahiz pertsonal bat egiteko, eginbehar hori lanaldian egin beharra aldeztirik justifikatuz gero.

**29. artikulua.** Hauteskundeetan hautagai izateagatiko baimen soldataduna.

Funtzionario bat hauteskundeetan hautagai baldin bada –Europako Parlamenturako hauteskundeak, Gorte Orokorretako diputatu eta senatoriak hautatzekoak, Nafarroako Parlamentukoak edo autonomia erkidego bateko beste legebiltzar baterakoak eta toki korporazioetakoak–, zilegi izanen da hauteskunde kanpainaren denboran lan egin beharretik salbuesita egotea, hartarako behar den baimen soldataduna eskatu eta hori eskuraturik.

**30. artikulua.** Norberaren gauzetarako baimen soldataduna.

Urtean zehar, arestiko artikuluetan jaso gabeko norberaren gauzetarako, funtzionarioek hiru laneguneko baimen soldataduna baliatzeko eskubidea izanen dute, edo proportzioan dagokien egundatekoa, baldin eta zerbitzu emandako denbora urtebetetik beheitikoa izan bada. Baimen hori baldin eta zerbitzuaren beharrezanek horretarako bidea ematen badute.

Langile baten lanaldiaren banaketa oro har ezarritakoaz bestelakoa baldin bada, kasuan kasuko baimen-egunak doitu zaizkio, kasuan-kasuan ezarritako den lanaldiaren iraupenaren arabera hain zuzen ere.

**31. artikulua.** Baimen soldatadunen justifikazioa.

Erregelamendu honetako 15etik 29ra bitarteko artikuluetan araututako baimen soldatadunak eskatzen dituztenek Zerbitzu Orokorretako buruari aurkeztu beharko dizkiote baimena baliatzeko

beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko agiriak.

**32. artikulua.** Bikote egonkorak.

Erregelamendu honetan arautzen diren lizentzia eta baimenetarako, ezkontidetzat hartzen dira bikote iraunkor bateko kideak, Bikote Iraunkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak agintzen duen moduan.

**Xedapen iragankorrak**

**Xedapen iragankor bakarra.** Erregelamendua aldi baterako aplikatzea lizentzia eta baimen indardunei.

Erregelamendu honetan jasotzen diren aurreikuspenak erregelamendua indarrean sartu aurretik hasitako lizentziei eta baimenei aplikatuko zaizkie,

baldin eta bukatu gabe badaude indarrean sartzen den egunean, eta soilik lizentzia edo baimena baliatzeko falta den denborarako.

**Azken xedapenak**

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamenduen garapena eta aplikazioa.

Legelari nagusiari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan erregelamendu hau garatzeko eta aplikatzeko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Erregelamendu honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (13. or.).
- II. Xedea (13. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (14. or.).
  - III.1. Norainokoa (14. or.).
  - III.2. Mugak (15. or.).
- IV. Ondorioak (16. or.).
  - IV.1. Nafarroako toki sektore publikoaren egitura (16. or.).
  - IV.2. Nafarroako toki entitateak 2005eko ekitaldian arautzen dituen arau-esparrua (17. or.).
  - IV.3. Egindako fiskalizazio txostenak (18. or.).
  - IV.4. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoera 2005ean (18. or.).
- 1. gehigarria. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruzko 2005eko txostena.
- 2. gehigarria. Nafarroako udal guztien 2005eko finantza egoera.

Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### I. SARRERA

Txostenak ondoko egitura du:

- Sarrera.
- Helburuak.
- Norainokoa eta mugak.
- Ondorio nagusiak, Nafarroako toki sektore publikoaren egiturari, Nafarroako toki entitateen arau-esparruari eta Nafarroako toki sektorearen finantza egoerari buruzkoak.
- Gehigarri bat, aurreko urtekoaren antzera egina. Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz 2005ean egindako txostena da.

Gehigarri honek bi atal dauzka. Lehenbizikoan toki sektore osoaren datu erantsiak jasotzen dira (udalak eta kontzejuak, eta mankomunitateak; bigarrenean, berriz, aurrekontu likidazioak eta toki entitatearen araberrako zenbait adierazle jasotzen dira.

Ekitaldi honetan, toki-jarduerari buruzko informazio osoagoa emate aldera, ondokoak ere eman ditugu txostenean: biztanle bakoitzeko aurrekontu-betetzea, biztanle bakoitzeko dirubilketa eta lau urteko adierazleak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioiko Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko eskaini diguten laguntzarengatik.

#### II. XEDEA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorritik, Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2005eko ekitaldiko txostena egin da.

Txosten hau eginez, Comptos Ganberak ondoren aipatzen diren helburuak lortu nahi ditu:

a) Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako iritzi publikoari Nafarroako toki entitateen antolamenduari eta egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi bat ematea, baita haien jardura legezketasun-printzipioaren araberrakoa den, Comptos Ganbera honek xede horretarako egin dituen lanen arabera.

b) Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko (TAFL) 350.2 artikulua esaten duena betetzea, hark ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero bidaltzea Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari Comptos Ganberak toki esparruan egin dituen jarduketan berri ematen duen laburpen-txostena.

c) Nafarroako Parlamentuari eta administrazio publikoei proposatzea, kasua bada, toki entitateei kudeaketa hobetzeko bidea emanen dien neurri orokorren multzo bat aurrera eraman dezaten.

d) Nafarroako udal guztien kontuen laburpena aurkeztea, laburpen horretan jarritz haien egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketa erraztuko duten adierazleak.

Toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorrak onetsi eta Gobernuari igortzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezarritako epeak eta

informazio horren tratamenduaren zailtasuna direla eta, txosten hau ezin izan da lehenago egin.

### III. NORAINOKOA ETA MUGAK

#### III.1. NORAINOKOA

Lan hau egiteko ondoko dokumentazioa aztertuko dugu:

a) Toki sektore publikoaren egitura. Nafarroako Estatistika Institutuaren eta Toki Administrazio Departamentuaren informazioa baliatu dugu, bai eta Nafarroako Comptos Ganberarena berarena ere.

b) Arau-esparrua Ekitaldian zehar onetsi eta argitaratu den araudia aztertu da.

c) Fiskalizazio txostenak. Aztertutako 17 entitateenak baliatu ditugu –horietako 16k 5.000 biztanle baino gehiago dituzte, eta batek 5.000 biztanle baino gutxiago–, Comptos Ganberak 2005eko ekitaldiari buruz eginak eta argitaratuak. Horra:

Fiskalizatutako udalak < 5.000 biztanle	Ekitaldia	NPAO. zk. (data)	Biztanleak, 2005-01-01eko erroldaren arabera	Aitorturiko eskubideak (eurotan)	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)
Galarko Zendea	2005	16 (08/02/20)	1.408	5.421.290,41	3.844.514,52
<b>Guztira</b>			<b>1.408</b>	<b>5.421.290,41</b>	<b>3.844.514,52</b>

Fiskalizatutako udalak > 5.000 biztanle	Ekitaldia	NPAO. Zk. (data)	Biztanleak, 2005-01-01eko erroldaren arabera	Aitorturiko eskubideak (eurotan)	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)
Altsasu (bateratu gabe)	2005	4 (07/07/18)	7.455	7.972.632,72	7.328.231,81
Antsoain	2005	10 (07/02/15)	9.862	10.286.468,61	9.355.936,64
Barañain	2005	47 (07/06/08)	22.295	12.929.202,16	13.668.628,78
Baztan (bateratu gabe)	2005	35 (07/04/04)	7.798	12.243.531,24	10.173.705,68
Berriozar	2005	47 (07/06/08)	8.244	4.922.742,43	4.967.173,22
Burlata	2005	10 (07/02/15)	18.316	12.830.186,96	13.392.075,13
Cintruñigo	2005	5 (08/01/18)	6.725	9.709.935,80	9.418.299,48
Corella	2005	4 (18/07/07)	7.621	7.574.500,39	6.771.806,42
Lizarra	2005	9 (08/02/01)	13.708	12.081.154,00	12.523.936,44
Iruña	2005	8 (07/09/05)	193.328	225.691.130,82	206.252.212,85
Azkoien	2005	3 (07/07/09)	5.741	7.513.230,25	5.671.487,33
San Adrián	2004-2005	11 (08/02/06)	5.968	5.212.605,39	4.617.932,40
Tafalla	2005	5 (07/07/20)	10.924	10.443.632,37	11.018.622,45
Tutera	2005	4 (07/07/18)	32.345	37.373.141,78	35.217.250,40
Atarrabia	2005	47 (07/06/08)	10.236	8.363.974,69	7.578.625,98
Zizur Nagusia	2005	10 (07/02/15)	13.052	17.881.060,20	11.821.337,12
<b>Guztira</b>			<b>373.618</b>	<b>403.029.129,81</b>	<b>369.777.262,13</b>

Fiskalizaturiko 17 entitate horien populazioa 375.026 biztanlekoa da, hau da, Foru Komunitateko 2005eko urtarrilaren 1eko erroldan dauden 593.472 biztanleen ehuneko 63,19.

5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalen datuak bateratuak dira, salbu eta Altsasu eta Baztango kasuetan.

29 erakunde autonomo aztertu dira, Nafarroan 2005eko ekitaldian zeuden 79 erakunde autonomoen ehuneko 36,71.

Toki entitatea	Erakunde autonomoa/Patronatua	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak
Altsasu	Aita Barandiaran zahar-etxea	701.886,00	701.194,00
	Musika Patronatua	215.230,00	224.804,00
Antsoain	Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	450.147,09	112.888,90
	Euskara sustatzeko Patronatua	82.293,05	27.755,09
	Sexu Hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua	1,90	0,00
Barañain	Lagunak Udal Zerbitzua	1.971.815,00	1.985.370,00
	"Luis Morondo" Musika Eskola	790.087,00	782.550,00
Baztan	Francisco Joaquín de Iriarte zahar-etxea	1.694.021,00	1.712.911,00
	Baztan Ikastola	430.233,00	457.175,00
Burlata	Kirol Patronatua	1.814.045,00	1.331.352,36
	Kultura Patronatua	584.995,26	82.962,28
	Musika Patronatua	693.723,60	475.217,86
Cintruénigo	Uren Udal Batzarra	724.897,97	832.589,39
	San Francisco de Asís Udal Patronatua	1.409.488,87	1.491.744,22
Corella	San José zahar-etxea	875.053,00	898.393,00
Lizarrá	Musika Patronatua	283.997,00	282.364,00
Iruña	Hirigintza Gerentzia	15.381.531,07	11.498.731,57
	Haur Eskolak	6.421.082,82	6.505.931,91
Azkoien	Musika Eskola	175.926,00	194.261,00
San Adrián	San Adrián Musika Eskolako Patronatua	112.101,00	115.437,00
Tafalla	Musika Eskola	446.406,00	200.370,00
	Kultura Patronatua	374.650,00	32.775,00
	Kirol Patronatua	311.123,00	87.874,00
Tutera	Uren Udal Batzarra	3.050.417,36	3.039.423,47
	Castel-Ruiz Kulturgunea	2.921.954,57	2.921.954,57
Atarrabia	Kirol Patronatua	381.000,00	320.000,00
Zizur Nagusia	Musika Eskolaren Patronatua	353.285,36	346.796,30
	Kultura Patronatua	409.285,29	425.068,68
	Ardoi Kirol Patronatua	499.531,73	531.516,96
<b>Guztira</b>		<b>43.560.208,94</b>	<b>37.619.411,56</b>


d) Finantza egoera. Toki Administrazioako Departamentuak emandako informazioan oinarrituta egin da (informazioa txosten honen gehigarri gisa doa).

### III.2. MUGAK

Ez dugu toki entitateen egoera-orri bateraturik; izan ere, ez da taxutu toki sektore publikoa bateratzeari buruzko araudirik, eta hori muga bat da txosten hau egiteari begira.

**IV. ONDORIOAK****IV.I. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN EGITURA**

2005eko abenduaren 31n, honelaxe osaturik dago Nafarroako toki sektore publikoa:



Jarriaian, Nafarroako toki sektore publikoak 2000ko eta 2005eko abenduaren 31n duen egitura azalduko dugu, fundazioak kontuan hartu gabe:

Erakundea	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Udala	272	272	272	272	272	272
Kontzejuak	363	362	362	362	358	355
Mankomunitateak	59	62	64	64	64	64
Udal batasunak	9	10	10	10	10	10
Partzuergoak	8	8	8	11	11	10
Erakunde autonomoak (udalak eta mankomunitateak)	76	75	76	75	75	79
Udalen merkataritza-sozietateak	9	9	10	13	14	20
Mankomunitateen merkataritza-sozietateak	5	5	5	5	5	5
<b>Guztira</b>	<b>801</b>	<b>803</b>	<b>807</b>	<b>812</b>	<b>809</b>	<b>815</b>

Iturria: Datuak aurreko txostenetatik, Nafarroako Estadistika Institututik eta Toki Administrazio Departamentutik atera dira.

Sei entitate gehiago dago, guztira. Hona xehe-tasunak:

Erakunde autonom.	Cortesko Kirolen Udal Patronatua Erroko Kultura eta Kirol Patronatua Mendabiako Udalaren Kirol Patronatua Garesko Udalaren Musika Patronatua Zangozako ura eta argiteria Zangozako Udalaren Kirol Patronatua Ultzamako Kirol eta Kultura Patronatua Vianako Ntra. Sra. de Gracia zahar-etxea	Tafallako Ospitale Santua Zahar-etxea Tafallako eskualdekoa Tafallako eskualdeko zabor-zerbitzua Atarrabiako Kultur Patronatua
Sozietateak	Isaba Distribuidora de Electricidad SODEAR Soc .Desarrollo de Arguedas Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea ORBALÁN Garinoain-Leotz Alloko Udalaren Hirigintza Sozietatea Roda Vieja (Aras)	
Kontzejuak		Geretz, Santsoain, Torralba del Río
Partzuergoak		Su-itzaltze Partzuergoa
Mankomunitateak	Andiako administrazio zerbitzuak	Aragoi ibarrekoa



Comptos Ganbera honen iritziz –behin eta berriro adierazi izan duen bezala–, arazoa ez da, berez, entitate-kopurua, baizik eta botere publikoek nahi izatea Nafarroako Toki Administrazioaren ereduak gaurkotu gabe jarraitzea. Eredu horrek bateragarri egin beharko ditu herritarren gaur egungo eskaerak eta kudeaketa publiko zentzuzkoa.

*Gure gomendioa da lehentasunez eta presaz aplikatu daitezela Nafarroako toki administrazioaren gaur egungo egoera arrazoizkoagoa izan dadin beharrezkoak diren neurri administratibo eta legegintzakoak. Neurri horiek baliagarri izan beharko dute XXI. mendean herritarren beharrei erantzun eraginkor eta efizientea emateko, eta xede hori erdiesteko behar diren finantza baliabideak edukitzeko.*

*Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan izanen dute eragina; hori dela eta, adostasun zabala lortu behar da aipatu ereduak zehazteko, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz.*

#### IV.2. NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK 2005eko EKITALDIAN ARAUTZEN DITUEN ARAU-ESPARRUA

2005ean ez zen aipatzeko moduko aldaketarik izan toki eremuko arauetan.

Ogasunaren arloan, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legea onetsi zen, jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren tarifak gaurkotu dira.

Abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legearen bidez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 134. eta 143. bitarteko artikulua aldatu ziren, eta 144. eta 145. artikulua, berriz, indargabetu. Artikulu horiek guztiak ondasun higiezinaren gaineko zergari edo hirilur-kontribuzioari buruzkoak dira. Aldaketa horiek eragina dute, besteak beste, zergaia osatzen duten ondasunetan, desagertu egin baita hiri- eta landa-ondasunen arteko bereizketa. Horrenbestez, bateratu egin da aplikatzekoak diren tasen tarteak, katastroko balioaren 0,10 eta 0,50 bitartekoa izanen baita. Halere, ondasunen kategoria berria eta tasa-tarteak soilik aplikatuko dira balioespen-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko abenduaren 21eko 12/2006 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz berraztertzen denean, 20/2005 Foru Legeko xedapen iragankor bakoaren adierazten den moduan.

#### IV.2.1. Beste alderdi orokor batzuk

Toki entitateei aplikatzekoa zaien esparru juridikoa dela eta, Comptos Ganberak ondokoa utzi nahi du jasota:

1.º Nafarroako toki sektoreari administrazio-arrazoizkotasun handiagoa emate aldera Toki administrazioari buruzko 1990eko Foru Legean ezarritako bideak ez dute eman bilatzen zen fruitua, eta emaitzak eskasak izan dira; izan ere, Nafarroako toki entitateen nahiz haien menpeko erakunde eta enteen kopurua etengabe handitu da azken urteotan.

2.º Halaber, antzeman dugu toki entitateek ez dituztela igortzen Kontratazio Administrazioaren Batzordearen Kontratuen Erregistro Publikora egitako kontratu guztiak; erregistro hori Kontratuei buruzko Foru Legeko 163. artikuluan ezarri zen. Halatan, aldaketa nabarmena ekarri beharko luke 2006an indarrean sartu izana Kontratuei buruzko Foru Legea eta Kontratazio Publikorako Batzordea eta haren kargupeko prozedurak eta erregistroak arautzen dituen 236/2007 Foru Dekretua, komunikazio guztiak egiten baitira bitarteko telematikoen bidez.

3.º Toki sektorea osatzen duten gainerako entitateei buruzko finantza-informazioa edukitzea komeni da, batez ere merkataritza-sozietateei buruzkoa, Toki ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Horren inguruan gogorarazi beharra dago 270/1998 Foru Dekretuak aipatzen duela ezen “bateratze egoera-orria... ez dela nahitaez bete beharrezkoa izanen aplikatzekoa den bateratze arauak garatu arte”.

Hori guztia kontuan hartuta, toki entitateak arautzen duen lege-esparruari dagokionez, honako gomendatu behar dugu:

- *Botere publikoek osa ditzatela toki entitateei buruzko arau-multzoaren xedapenak, toki entitate horiek eskura izan ditzaten indarreko legediak ezartzen dituen lanabesak eta bitartekoak, eta, horrela, euren baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko aukera izan dezaten. Gai horretan, diseinatu beharrezko administrazio ereduak aintzat hartu beharko du Nafarroako toki entitateen taxuketa anitza –tamaina, bitartekoak eta giza baliabideak–, arauetako eskakizunak egokitze. Foru Komunitateko toki sektorearen administrazio arrazoizkotasunaren maila areagotze aldera legedia indardunean aurreikusitako neurriak ere hartu beharra dago, zerbitzua hobeki emanen bada toki eremuan.*

• *Toki enteen eta euren merkataritza-sozietate publikoen finantza-informazioaren aurkezteari eta bateratzeari dagozkion eta egoki diren legegintza-neurriak hartu behar dira, sozietate horiek eginiko jarduerari eta, ondorioz, toki sektore publiko guztuari buruzko ikuspegi osoa emateko.*

#### IV.3. EGINDAKO FISKALIZAZIO TXOSTENAK

Txosten honetako “norainokoa” atalean ikusi den legez, 17 entitate fiskalizatu dira, 29 erakunde autonomo dituztenak, eta horiei buruzko txostenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Comptos Ganberaren web orrian daude argitaratuta.

Horiek denak argitaratuta daudenez, txosten horietan esaten denari gagozkio.

Oro har, bilakaera positiboa izan du Nafarroako Comptos Ganberak azken urteotan fiskalizatutako entitateen kudeaketak, batez ere aldiro ikuskatu izan direnenak oki entitateei buruz egindako 17 txostenetatik, kasu batean ezin izan zen iritzirik eman ondare-egoera, emaitza ekonomikoa eta aurrekontuaren likidazioa direla-eta aurkeztutako finantza egoera-orri buruz.

San Adriángo Udalaren kasuan 2004ko eta 2005eko ekitaldiak aztertu dira, berezia delako kontabilitate- eta aurrekontu-egoera. Aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu ziren, eta kontabilitateari dagokionez a posteriori aurkeztu da eginiko jarduera. Aurrekontu-egozketa okerrak daude; ondare-egoerak badu salbuespen bat, eta kontratazioari eta langileak hautatzeari buruzko araudia ez da beti bete.

Gainontzeko 15 entitateenkasuan, aurrekontu-likidazioak behar bezala islatzen du, oro har, eginiko jarduera, egoera-balantzeak ere ongi islatzen du ondarea, eta udalen ekonomia- eta finantza-jar-

duera araudia indarduna errespetatuz egiten da. 13 entitateri buruzko iritzia aldekoa da, inbentarioak gaurkotu gabe izateari buruzko salbuespenak salbuespen.

Salbuespenen edo gomendioen artean, ondo-koak dira gehien errepikatzen direnak:

- Ondasunen inbentarioa gaurkotzea (edo, kasuren batean, egitea) (14 entitate).
- Aurrekontua eta haren likidazioa ezarritako epeetan onestea (bi entitate).
- Kontabilitate egoera-orri bateratuak egitea (udalean eta erakunde autonomoetan) (bi entitate) eta erakunde autonomoen jardueraren gainean udalek duten kontrola areagotzea (sei entitate).
- Araudia betetzea, bereziki administrazio-kontratazioari buruzkoa (bost entitate).
- Udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsio-eredu indardunen ondoriozko betebeharrak aktuarialak zenbatetsi ez izana (hiru entitate).
- Patronatu batzuk udal zerbitzu bilakatzeko aukera aztertzea; izan ere, haien baliabide ia guztiak udalek jartzen dituzte (bi entitate).
- Aurrekontu-eredu bat ezartzea, eraginkortasuna analizatzeko ezinbestekoak diren helburu eta adierazleak bilduko dituen (bi entitate).

#### IV.4. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA 2005ean

Eranskinean aurkezten da Toki Administrazio Departamentuak Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruz 2005ean egindako txostena.

Toki sektore osoaren kontu bateratuei erreparatuz gero, emaitza honela laburbil daiteke:

	2005	2004	2003
Aurrekontu-emaitza doitua	36,9 milioi	34,7 milioi	18,5 milioi
Aurrezpen garbia	53,9 milioi	56,7 milioi	36,9 milioi
Zorpetze-ahalmena	ehuneko 9,7	ehuneko 11,1	ehuneko 7,9
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	112,3 milioi	94 milioi	68,2 milioi
Zorra, guztira	223,6 milioi	218,7 milioi	192 milioi
Zor bizia biztanleko	380 euro	374 euro	333 euro

Gastuak ondoko arloetan egiten dira batez ere: inbertsioak (ehuneko 32), langileak (ehuneko 28) eta ondasun arruntak eta zerbitzuak (ehuneko 26); horien finantzazioa, berriz, transferentzietatik (ehuneko 45) eta tributu bidezko dirusarreretatik (ehuneko 34) heldu dira.

Gastuak kode funtzionalen arabera aztertuz gero, azpifuntzio nagusiak ondokoei dagozkie:

	% 2005	% 2004	% 2003
Hirigintza eta arkitektura	15,3	17,7	17,6
Entitatearen administrazio orokorra	9,5	9,0	8,6
Pentsioak eta antzeko bestelako prestazio ekonomikoak	6,9	7,1	6,6
Kirolaren sustapena eta zabalkundea	6,3	7,0	9,4
Uren saneamendua, hornidura eta banaketa	6,9	6,4	7,1
Kulturaren sustapena eta zabalkundea	4,7	4,9	4,2
Segurtasuna eta udaltzaingoa	5,0	4,6	4,5
Atsedeneko eta aisialdiko bestelako jarduerak	3,9	3,8	3,4
Zaborrak bildu, tratatu eta deuseztatzea	3,5	3,6	2,6
Finantza-karga	3,8	3,5	5,0
<b>Honaino, guztira</b>	<b>65,80</b>	<b>67,60</b>	<b>69,00</b>

Hona azken urteotako bilakaera:

	2005	2004	2003	2002
<b>Gastuak</b>				
Arruntak, ehunekotan	62,3	60,1	56,2	58,0
Kapitalezkoak, ehunekotan	37,7	39,9	43,8	42,0
<b>Dirusarrerak</b>				
Arruntak, ehunekotan	67,2	68,1	68,9	66,4
Kapitalezkoak, ehunekotan	32,8	31,9	31,1	33,6

2002tik 2005era bitarte, ikusi da gastu arruntek pisu handiagoa hartu dutela aurreko urteetan zutena baino, eta, horrenbestez, kapital gastuek pisu txikiagoa dutela. Bestalde, dirusarreretan arruntek ehuneko txikixeagoa egiten dute aurreko ekitaldian baino, baina handiagoa da 2002an baino.

Dirusarrerak jatorriaren arabera aztertzen baditugu, bada horien osaketan nolabaiteko egonkortasuna, baina, aurreko urtekoekin alderatuta, ondare bidezkoak igo egin dira 2005ean, eta transferentzia bidezkoak dira muntakoenak, ondoko taulan ikus daitekeenez:

	(ehunekoak)			
Dirusarriaren jatorria	2005	2004	2003	2002
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	34	35	33	32
Transferentziak (4 eta 7)	45	49	49	49
Finantza eragiketak	4	8	8	4
Ondarezkoak(5+6)	17	9	10	15
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Ondoko taula honetan islaturik dago zein izan den gastu eta dirusarrera arrunten bilakaera 2001etik 2004ra:

	Ehunekotan			Ehunekotan			Ehunekotan	
	2005	Aldea, 2005/04	Aldea, 2005/02	2004	Aldea, 2004/03	2003	Aldea, 2003/02	2002
Gastu arruntak (1etik 4ra)	476.520.646	9,4	27,1	435.553.722	7,0	407.227.778	8,6	374.884.116
Gastu arruntak biztanleko	804	7,7	21,5	746	5,8	705	6,6	662
Gastu arruntak (1etik 5era)	553.807.921	8,0	21,6	512.763.184	7,9	475.238.266	4,4	455.337.019
Dirusarrera arruntak biztanleko	934	6,4	16,1	878	6,7	823	2,4	804
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	280.510.662	7,1	27,1	261.699.516	11,1	235.630.848	6,8	220.699.217
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3) biztanleko	473	5,5	21,2	448	9,8	408	4,7	390
Erreferentziatzko populazioa	592.974			584.071		577.500		566.487

Populazioa ehuneko 4,7 hazi den epe horretan:

- Gastu arruntak ehuneko 27,1 hazi dira, baina igoera ehuneko 21,5ekoa baizik ez da biztanleko aztertuz gero.

- Gastu arruntak ehuneko 21,6 igoera dira, baina biztanle bakoitzeko aztertuz gero ehuneko 16,1ekoa da igoera.

- Tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 27,1 igo dira, baina biztanleko aztertuz gero ehuneko 21,2koa da igoera.

Honako hau izan da azken urte hauetako zorraren bilakaera:

	2005	2004	2003	2002
Zorra, guztira (euroak, milioitan)	224	219	192	173
Zorra/biztanlea (eurotan)	380	374	332	306

Datu horien arabera, 2002 eta 2005 arteko zorra ehuneko 29 igo da, nahiz eta biztanleko zorra ehuneko 24 soilik igo.

Eranskinaren bigarren partean sartu dira udal bakoitzari buruzko datuak, eta, aldeaz aurretik, zortzi biztanle-tarteei buruzko batez besteko adierazle batzuk (500 biztanletik 50.000 biztanletik gorako udalei buruzkoak), halako moduz non entitate bakoitza bere biztanle-tarte berekoen batez beste-koarekin konpara daitekeen.

Comptos Ganberak iaz eginiko gomendioari jarraikiz, orobat aurkeztu dira biztanle bakoitzeko zergen likidazioari buruzko datuak, eta entitate bakoitzari buruzko lau urteko adierazleak sartu dira, eta horrek konparazioak egitea errazten du.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## **Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2009rako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiak txosten bat egin du Mahaiak 2008ko abenduaren 29an onetsitako erabakia aldatu beharrari buruzkoa. Erabaki hori 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Aipatu txostena ikusirik eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 106.1 eta 108.1 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Aldatzea Mahaiak 2008ko abenduaren 29an Erregistroaren ordutegiari buruz onetsitako erabakia, eta Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2009. urterako hauxe izanen dela ezartzea:

### Ohiko bilkuraldiak:

– Astelehenetik ostegunera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

– Ostiraletan: 09:00etatik 14:30era.

– Larunbatetan eta abenduaren 24an: itxita.

### Bilkuraldien arteko aldia:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Larunbatetan: itxita.

Urtarrilaren 5ean eta uztailaren 6an, 7an, 8an, 9an, 10ean, 13an eta 14an itxita egonen da, eta horiek egun baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

**2.** Igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak ere baliogabeak izanen direla ezartzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Aldatzea Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2009rako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiak txosten bat egin du Mahaiak 2008ko abenduaren 29an onetsitako erabakia aldatu beharrari buruzkoa. Erabaki hori 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Aipatu txostena ikusirik eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Aldatzea Mahaiak 2009. urteko lan egutegiari buruz 2008ko abenduaren 29an onetsitako erabakia, eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2009ko egutegia onestea. Hauek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

– Uztailaren 7a, 8a, 9a, 10a, 13a eta 14a: San Ferminetako jaiegunak.

– Urtarrilaren 5a eta uztailaren 6a: jaiegunak.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administrazioarako oro har ezarritakoak.

**2.** Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostegunera, eta ostiraletako lanaldia goizez izanen da.

Urtarrilean lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta 08:30ak bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30ak eta 15:30ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Abenduaren 24an lanaldia 08:00etatik 13:00etara bitartekoa izanen da.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta 08:30ak bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00ak eta 15:00ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta 30 minutu benetako bete beharko dira lanean.

**3.** Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

- a) Goizeko txanda.
- b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan argitaratzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---



